

## TAILER TXIKIA: ZOPA

Proposamen honek aurkikuntza, akzioa eta materialen eta objektuen arteko lotura errazten du. Aurkikuntza matematikoak eta fisikoak ematen ditu: nola erortzen den zopa ikustea, nola bolatxoak biraka aritzen eta barreiatzen diren, ontzi-aldaketak egitea, bolatxoak pilatzea...



Garatzen ditu GAITASUN KOGNITIBOAK (ulertzea, harremantzea, ezagutzea...), PERTZEPTIBOAK (ikusmena, entzumena, ukimena, zaporea, usaimena), MOTORRAK (motrizitate fina), AFEKTIBOAK (norberaren lorpenez gozatzea). Haurrek zentzumenen bidez manipulatzeko objektuen ezaugarriak deskubritzen dituzte, ikaskuntza berriak eginez. Emaitza zehatzik lortu nahi ez duen jolasa da, dena baliozkoa da eta edozein sorkuntza ongi dago.

### NOLA PRESTATU?

Plastikozko ontzi batean (adibidez garbigailutik arropa ateratzeko erabiltzen dugun ontzian) edo kartoizkoan (zapata kutxa handi batean), 2 edo hiru kilo zopa pasta jarriko ditugu



(bolatxoena). Ondoa objektu desberdinak jarriko ditugu: inbutuak, edalontziak, kartoio edo plastikozko tutuak, plastikozko botilak, koilarak, burrunzalitxoak, iragazkiak, pintzelak eta brotxak... Ikertzera eta esploratzera gonbidatzen duten objektuak.

Tokia mugatzeko eta pasta-bolatxoak berreskuratu ahal izateko, lurrean zabaldutako izara batean jarriko dugu material guztia. Izara zapaltzerakoan umea ez irristatzeko, karrozero-zintarekin edo antzeko zerbaitekin

lurrari itsatsi diezaiokegu.

Helduok, ahal dugun neurrian, saiatuko gara jolasean ez parte hartzen. Dena den, edozein proposamenetan bezala, behatzea oso interesgarria eta komenigarria izango da.

Eta orain, disfrutatzeraz!